

## **Estitxu gazte gazterik galdu ginuen kantari xoragarria.**

Leku-eder baserrian sortu zen, Beskoitzen . Espainiako Gerra Zibilean frankistak etxean sartu ondoren, Bilbotik erbestera jo behar izan zuen Estitxuren familiak, Bordelera (Okzitania, frantziar estatuan) lehenengo eta Kanbora (Lapurdi) ondoren. Estitxuren aita, Manuel Robles-Arangiz, ELA sindikatuaren sortzaileetako bat izan zen, eta Argentinara erbesteratu zen Primo de Riveraren diktaduran. 1936an diputatu izan zen. **Estitxuren** familia 1949an hasi zen Bilbora itzultzen, baina Estitxu ez zen 1952 arte itzuli.

Musika eta, oro har, arte zaletasun handiko familia zen Robles-Arangiz Bernaolatarrena. Ama kantaria zen eta Estitxu bera hamaika anai-arreben artean gazteena. Neska koskorra zela, haren hamar neba-arrebak kantuan, txistuan, dantzan eta antzerkian aritzen ziren Bilbon eta Ipar Euskal Herrian antolatzen ziren jaialdietan. Estitxuren lau ahizpek (Edurnek, Garbiñek, Gizanek eta Maitanek) Ainarak taldea osatu zuten, eta Alatz, Irkus, Ugutx eta Iker ainaiek Soroak laukotea. Mutilek disko txiki bat grabatu zuen Ximun Haranekin Baionako Euskal Museoan, eta Joxemari Iriondo kazetariaren ustez, hori izan zen «Euskal Kantagintza Berriaren lehenengo urratsa».

### **Euskal kantagintzan hastea**

Etxeko artista giroak arrasto sakona utzi zuen Estitxurengan; Aurora Abasolorekin ikasi zuen solfeoa eta José Herrerorekin gitarra jotzen. Gitarraren laguntzaz, plazaz plaza aritzea erabaki zuen. 1967an hasi zen kantari, 23 urte zituela. Bilboko Santiago Apostoluaren aretoan eman zuen lehen kontzertua, 1967ko Gabon egunean. Jaialdi berean aritu ziren Argoitia anai-arrebak, Daikiris orkestra, Sara Soto eta Natxo de Felipe, besteak beste.

Hastapenetik harrera ona izan zuen Bilbon eskaini zituen emanaldietan: Coliseo Albia antzokian, Seis Estrellas dantzalekuan, Deustuko Casa Vascan... 1968an hiru lehiaketa irabazi zituen: Seis Estrellas dantzalekuan egindako Música Joven lehiaketa, Eibarko San Joan jaietan Radio Juventudek antolatutako Primer Premio de Intérpretes de la Canción en Euskara-Gran Premio de Eibar —Maite Idirin sailkatu zen bigarren; taldeen sailean, Oskarbi eta Ameslariak izan ziren lehen eta bigarren, hurrenez hurren eta Maulen hirugarrena. Segidan hasi zitzaizkion deika Gipuzkoako, Bizkaiko eta Iparraldeko jaialdi askoren antolatzaileak. Lehen urte haietan Estatu batuak folk kantuak euskaraz ematen zituen **Estitxuk**, eta horietako batek, lehen singlean grabatutako *Euskaldun makilak*, ospea eman zion.

### **Euskal abeslari famatua: Beskoitzeko urretxindorra**

*Beskoitzeko urretxindorra* izen goitia jarri zioten komunikabideek, haren ahotsaren edertasuna zela eta. Estitxuren garai berean kantari hasitako Maite Idirinen arabera, «izugarria zen, ahots ederra, naturala eta lasaia zuen». «Bihotz handiko neska zen, sinpatiaz betea, komunikatzaile ona, eztarri ederraren jabe, eta kantatzeko modu berezi eta harrigarria, irribarre zabala eta lagunarterako aparta», dio Estitxu gertutik ezagutu zuen Joxemari Iriondok. 1969 ko hastapenean Mexiko eta Venezuelara joan zen kantatzera, euskal etxeek gonbidatuta. Hainbat emanaldi eskaini zituen hilabete baino gehiago iraun zuen egonaldian, eta hango komunikabideek oihartzun handia egin zioten. *Zeru garbia* kantuak arrakastaren gozoa ekarri zion, eta hurrengo urtean Caracasko Promus diskoetxeak *Una voz increíble* diskoa argitaratu zion. Estitxuk moldaturiko hamar kantu eta harentzat beren-beregi sortutako *Tonadillera campesina* bildu zituen diskoak. Haatik, kantu hori ezabatu egin zuten Espainiako Movieplay

diskoetxearen argitalpenean (*Bakarrik*), zentsuraren beldurrez. Euskaraz abesten zuten beste hainbat kantarik bezala, frankismoaren zentsurarekin hainbat aldiz topo egin zuten Estitxuk. Esaterako, Bilbon gor-mutuen elkarte baten aldeko kontzertuan parte hartzea debekatu zioten 1970ean, eta Espainiako TVE telebista publikorako grabatutako saioa ez zen inoiz emititu. Euskal Herrian ere bazterketa jasan zuen behin baino gehiagotan.

Parisen ere abesten ibili zen ezaguna zuen paristar batek gonbidatua. Antza, ez zuen sobera gustukoa izan Parisko bizia eta laster itzuli zen Euskal Herrira.

1970eko hamarkadan hainbat lan argitaratu zituen, besteak beste *Estitxu* (Columbia, 1972) eta *Estitxu* (Columbia, 1976) disko luzeak, eta haur kantuen singleak. Halaber, *Zirikan* ikuskizunerako musika sortu zuen, eta izen bereko diskoan jaso 1978an. Lan horietan guztietan abesti propioak, herri kantuak eta atzerriko egileen moldaketak tartekatu zituen Estitxuk. Haatik, 1980ko hamarkadako diskoetan kanpoko abestiak baztertu zituen eta euskal kantutegiari erreparatu zion zabalago. Horrela osatu zituen *Guraso'eri* (Agorila, 1982), Errobi taldeko musikariekin grabatua, eta bere azken diskoa, *Zortzikoak* (Xoxoa, 1986), hari moldaketaz jantzitako lan joria. Garai hartan Gerard Luc akordeoi jotzailea izaten zuen lagun maiz zuzeneko emanaldietan, baina *Zortzikoak* grabatu eta berehala, gaixotasun larri batek agertokietatik eta edozein agerraldi publikotatik kanpo utzi zuen hainbat urtez.

## **Ibilbidearen bukaera**

1993ko otsailaren 5ean agertokira itzuli zen Irunen (Gipuzkoa), Amaia antzokian, eta emeki kantaldiak berriz hartzeko asmoa azaldu zuen. «Laster artio, Euskal Herria!» erranez agurtu zituen entzuleak. Beste disko bat egitea zuen buruan. Haatik, handik hiru astera hil zen, otsailaren 24an, minbiziak jota, Bilbon Basurtuko Ospitalean.

Hurrengo urtean Estitxuren omenezko diskoa kaleratu zen, *Estitxu* (Agorila, 1994), Jean Garin, Mario Gachis eta Mixel Ducau musikariek haren kantuen gainean egindako moldaketekin. Hura aurkezteko kantaldi bat egin zen Miarritzeko Koliseoan, 1994ko azaroaren 6an. Han parte hartu zuten Arrantzaleak taldeak, Gerard Lucek, Mario Gachisek, Aritzak taldeak eta Beskoitzeko Oinak Arin dantza taldeak.

2017ko martxoaren 8an Baionan bere izena daraman kalea izendatu zuten.

2018an Franck Dolosor kazetariak eta Iban Gonzalez errealizatzaileak, Estitxuren ekarpen artistikoari buruzko ordubeteko dokumentala estreinatu zuten. Bertan, senideek, lagunek eta bera ezagutzen zutenen azalpenak biltzen dira.